



FLOREAGA
SALESTAR IKASTETXEA

Izarraitz z/g * 20720 - AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 853 043 / Faxe 943 857 021
E-mail-<floreaga@floreaga.com

FEMINISMOA

1. Definizioa eta jatorri historikoa

Feminismoa gizarte zibilean sortutako mugimendua da, **emakumearen emantzipazioaren** alde, emakumeak emakume izateagatik diskriminatu baitituzte, bai lehen, bai gaur egun. Emakumearen eskubideak berreskuratzeko ahalegina da.

Kontzeptuak argitu behar dira:

Garbi dago gizona eta emakumea **ez** direla **berdinak**: gorputzaren egitura eta psikologia ez dira berdinak.

Baina gizonak eta emakumeak **duintasun eta eskubide berdinak** dituzte.

Historia laburra:

1.1. - **Lehenengo mugimendu feministak** Frantziako Iraultzaz geroztik sortu ziren. 1791. urtean, Olympe de Gougesek "Emakumeen eta Herritarren Eskubideen Aldarrikapena" idatzi zuen, Frantziako Asanbladak egindako Gizonen eta Herritarren Eskubideen Aldarrikapenaren pareko.

1792an, Mary Wollstonecraftek Emakumeen Eskubideen Aldarrikapena idatzi zuen.

1.2. - Lehenengo mugimendu **antolatuak** XIX. mendearen erdialdera sortu ziren: Flora Tristan, John Stuart Mill, Elizabeth Cady Stanton eta Lucretia Mott, besteak beste, lanean aritu ziren emakumeak boto-eskubidea izan zezaten. Izan ere, hori lortuz gero, errazago bultza zitzaketen gobernuak eta alderdi politikoak emakumeen egoera hobetzera. Horrela sortu zen mugimendu sufragista.

1.3. - **Euskadin**, emakumeen politika-jarduera oso goiz hasi zen, emakumeen boto-eskubidea 1932an onartu baino lehenago.

1922an sortu zen Emakume Abertzaleen Batza, nazionalismoarekin loturiko taldea. Urte horietan, emakumezko buruzagi komunista batek ere, Dolores Ibarruri "Pasionaria" izenekoak, eragin handia izan zuen politikan eta langileen mugimenduan.

1.4. - Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren, **emakumeen boto-eskubidea** errealitatea zen Mendebaldean, diskriminazio juridikoak desagertuta zeuden ia herrialde industrializatu gehienetan, eta beraz, XIX. mendeko feminismoaren aldarrikapen nagusiak lortuta zeuden.

1.5. - Baina harrezkero **feminismo berria** sortu zen, gizartearen egituren transformazio sakonak lortzeko, emakumeentzat diskriminatzaileak baitira oraindik ere. Emakumeak konturatzen dira amatasuna eta etxeko lanak ez direla nahikoa pertsona gisa errealizatzeko.

1.6. - Feminismoa **70eko hamarkadatik aurrera**

70eko hamarkadatik 90eko hamarkadaren bukaera arte, feminismoa hiru modu nagusitan egituratu zen:

- Mugimendu erradikalak. Mugimenduaren alderdi ikusgarrienak dira. Sexuen arteko borroka erradikalaren alde daude, beren alderdiak antolatzen dituzte, batzuk lesbianismoaren aldekoak dira, beste batzuek uste dute emakumeak gizarteklasen zapaldua direla.
- Joera feminista-sozialista. Joera horren ustez, emakumeen arazoak ezin dira gizadi osoaren arazoetatik bereizi. Kontua ez da feminismoa gizonezkoen aurkako borroka gisa bakarrik antolatzea, baizik eta **aldaketak lortzea**, emakumeak zapaltzen dituzten egiturak, jarrerak eta pentsamoldeak aldatzeko.
- Feminismo liberal-erreformista. Ikuspegi horren helburu nagusia arlo guzti-guztietan emakumearentzako eskubide berdintasuna lortzea da. Jarduerak egiten dituzte, emakumearen interesen alde, hiritarra denez gero.

1.7. Euskadin, **erakundeek emakumeen eskubideak kontuan** hartu eta Emakumearen Euskal Erakundea, Emakunde, sortu zuten 1988an. Gainera, gure inguruan emakume-elkarte ugari sortu dira, hainbat helburu lortzeko. Talde batzuek politika-helburuak dituzte, esate baterako, Plazandreek eta Lanbroa taldeek; beste batzuek, berriz, lana, prestakuntza eta abar dituzte langai, adibidez, Bagabiltza taldeak edo Emakumea Sustatzeko Zentroek.

2.- Gaur egungo feminismoa

Gaur egun, feminismoa gizarte mugimendu garrantzitsua da oraindik ere. Talde feministek eta erakunde ofizialek (Emakunde, adibidez) hainbat jarduera egiten dituzte emakumeek **lan baldintza berdinak** izateko, **hezkuntza ez-sexista** lortzeko, hizkera sexista ezabatuzko, lan munduan dagoen sexu-jazarpena desagerrarazteko, izateko, eta emakume bananduei, tratatu txarrak jasan dituztenei eta **baliabiderik ez dutenei legezko laguntza eta babesa** emateko.

Feminismoa tradizionalki gizonezkoentzat ziren zenbait arlotara ere heldu da. Adibidez, filosofian Carol Pateman, Carol Gilligan eta Sheyla Benhabib nabarmentzen dira.

Kristau teologian, feminista batzuk Bibliaren ikuspegi ez-sexista eskaintzeko borrokatzen dira (Jainkoa Ama), eta mendeetan zehar erlijioa aitzakia hartuta gauzatu den emakumearen diskriminazioa gainditzeko.

Munduko batzarrak antolatzen dira, emakumearen arazoei buruz eztabaidatzeko. Batzar horietan, emakumeak lan mundura sartzeko dituen arazoei heltzen zaie: **lanaldi bikoitza** (etxetik kanpoko lan ordaindua, batetik, eta etxera itzuli ondorengo etxeko lanak, bestetik), **jaiotza-kontrola** edo Hirugarren Munduko herrialderik gehienetan duen **familia-buru eginkizuna**.

Gaur egun, berdintasunaz baino gehiago, diskriminazio positiboaz hitz egiten da. Termino horren bidez, emakumea bereziki laguntzeko eta sustatzeko beharra adierazi nahi da, sexuak eragindako alde txarrak gaindi ditzan.

Desberdintasunaren feminismoa ere aipatzen da. Hau da, emakumearenak direla uste izan diren gaitasunak bizitza publikora ekartzea, mundu pribatura baztertu gabe.

Hala ere, oso deigarria da emakumearen egoera **mundu musulmanean**. Milioika emakumek lege zibil eta erlijio-lege diskriminatzaileak, beloaren erabilera eta gizonetikiko mendetasuna onartu behar dituzte, bestela jazarri egiten dituzte-eta.

Gizonaren eta emakumearen ohiko funtzio eta rola oso finkatuta daude gizartean.

- **Gizonezkoei** arrazionaltasuna, trebetasun teknikoa, agresibitatea, ambizioa bizitza publikoan, lehiatzeko alde aurretiko jarrera, interes unibertsaleko gai buruzko tre-bezia, indarra eta irudimen-dohainak egokitu zaizkie.

- **Emakumezkoei**, berriz, irrazionaltasuna, ahultasuna, jasankortasuna edo pazientzia, intuizioa, samurtasuna, azpijokoa menderatzea, sentimentalitasuna, errukitasuna, gai unibertsalak ulertzeko eta proiektatzeko gaitasunik eza.

Banaketa hori **gezurrezkoa eta bidegabea** da. Izan ere, banaketa hau interes batzuen arabera egin da: emakumeak politika, kultura, ekonomia eta erlijioa arloetan organo erabakitzaileetatik aldentzeko ahalegina egin da. Etxeko lanak egiteko, haurrak, gaixoak eta zaharrak zaintzeko eskulan merkea ziurtatu nahi da.

Tradizioak markatzen dituen eredu horiek jarraitzen ez dituzten pertsonak marjinatu egiten ditu gizarteak, izan gizon, izan emakume.

EMAKUME OSPETSU BATZUK



Madame Curie



Flora Tristan 1



Flora Tristan 2



Clara Zetkin



Virginia Woolf




Roxa Luxemburgo



Dolores Ibarruri



Harriet Tubman



Harriet Tubman



Mileva Maric



Mileva Maric



Adela Cortina



Angela Davis



Teresa de Calcutta



Petra Kelly



Rigoberta Menchú



Carmen Bernabé Ubieta



Simone de Beauvoir